

23. KORRIKA!

A2 maila

IBILBIDEAREN JOLASA

PROZEDURA, ARAUAK ETA FITXAK (PAPEREAN ETA ONLINE)



HARRO HERRI

æk
23.korrika
Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

JOKOAREN HELBURUA:

- ▶ 23. KORRIKAK egingo duen ibilbideari jarraikiz, nor bere fitxa Irundik Baionara eramatea. Irabazlea izango da Baionara aurrena heltzen den jokalaria.

JOKOA PRESTATU:

- ▶ Jokoan hasi aurretik, presta itzazu beharko dituzun osagai guztiak: mapa, dadoak eta fitxak. Mapa 19. orrialdean duzu. Egin horren kopia handia (A3 neurrikoa, esaterako). Kopia koloretan egin ahal baduzu, hobeto (bestela, 23. KORRIKAREN ibilbidearen kartel baten gainean hizkiak jar ditzakezu).
- ▶ Txartelak, audioak eta ikus-entzunezkoak erabiltzeko bi modu daukazu aukeran:
 - **PAPEREZKO TXARTELAK:** txartelak hurrengo orrialdeetan dituzu (7.-18. or.). Lehenengo eta behin, kopiatu eta moztu egin beharko dituzu; ondoren, multzoka jarri beharko dituzu gaika bilduta (euskarari buruzko galderak, geografiari buruzkoak eta Korrikari buruzkoak), eta ahoz behera utzi maparen ondoan. Txartelak errazago bereizteko, koloretako orrietan kopia ditzakezu: euskarari buruzko galderak, esaterako, urdinetan; geografiari buruzkoak, berdeetan; eta Korrikari buruzkoak, laranjetan. Komeni da “Jokorako ikus-entzunezkoak” eta “K audioak” karpetak alde aurretik jaistea eta ordenagailuaren pantailan prest izatea, behar ditugunean erraz erabili ahal izateko. Txarteletan bertan ez dauden erantzunak 3. orrialdean dituzu.
 - **ONLINE TXARTELDEGIA:** galderak, audioak eta ikus-entzunezkoak nahastuta agertuko dira KORRIKAREN atalean. Horretarako, jolastu bitartean pantaila handian esteka hau irekita eduki behar duzu: “23. KORRIKA Ibilbidearen jolasa TXARTELDEGIA A2”
<https://korrika.h5p.com/content/1292170213387048667>
(Erantzunak zuk izango dituzu, ikusi 5. eta 6. orrialdeak).
- ▶ Dadoak eta fitxak beste edozein jokotatik atera ditzakezu.

JOKALARIAK ANTOLATU:

- ▶ Kopuruaren arabera, bakarka, binaka ala hirunaka jokotuko dugu: sei jokolari baino gutxiago bagaude, bakarka; sei eta hamabi bitartean bagaude, binaka; eta hamabi jokalaritik gora egonez gero, hirunaka.

JOKOAREN ARAUAK:

- ▶ Jokoari hasiera emateko, jokolari guztiek dadoa bota eta zenbakirik altuena ateratzen duenak emango dio hasiera jokoari.
- ▶ Jokalariak dadoa bota eta dagokion laukiraino mugituko du fitxa. Lauki horretan, letra bat aurkituko du: **K (Korrika)**, **G (geografia)**, **E (euskara)** edo **Z (zortea)**. Jokalariak laukiko letrari dagokion txartel bat hartu eta, **ikusi gabe, irakasleari emango dio** irakur dezan.
- ▶ Txartel batzuetan **hieroglifo bat aterako da**. Jokalariak **minutu bat izango du erantzuna asmatzeko**. Asmatzen badu, dadoa bota eta aurrera egin ahal izango du; bestela, txanda galduko du.
- ▶ **K, G eta E multzoetan, galderak daude:** jokalariak galderari zuzen erantzuten badio, dadoa berriro bota ahal izango du; txarto erantzuten badu, ordea, hurrengo jokalaria txanda izango da. Erantzunak txarteletan bertan daude azpimarratuta. Jokalari batek, gehienez, hiru aldiz jarraian bota ahal izango du dadoa.
- ▶ Txartelean **izartxo bat agertuz gero, “Jokorako ikus-entzunezkoak” karpetara jo** eta txartelean aipatzen den dokumentua zabaldu eta ikusiko dugu. Txartelean **K+zenbaki bat+KANTA agertuz gero, “Audioak” karpetara jo** eta txartelean aipatzen den dokumentua zabaldu eta entzungo dugu.
- ▶ **Z letradun laukietan** eroriz gero, bertan esaten dena egin behar izango du jokalaria.
- ▶ Txartel bat erabili ondoren, sartu berriro dagokion multzoaren behealdean.
- ▶ **Fitxa bi ezin izango dira lauki berean egon;** hortaz, jokalari baten fitxa beste batena dagoen laukira iristen bada, aurretik zegoen fitxak atzera egin beharko du bi lauki.

Paperezko fitxen erantzun zuzenak:



Jokoaren erantzun gehienak txarteletan daude azpimarratuta, baina gutxi batzuek txarteletan agertu behar ez dutenez, hona ekarri ditugu:

KORRIKA-LOGOTIPOAK:



4. KORRIKA



12. KORRIKA



13. KORRIKA

HIEROGLIFOAK:

- Zein herri zeharkatu ohi du Korrikak Lapurdira sartu aurretik? **Irun.**
- Herri hau KORRIKA baten abiapuntua izan zen. **Andoain.**
- Nola egingo duzu korrika? **Kohete batek bezala.**
- Zenbat kilometro egingo duzu KORRIKAn? **Hamaika.**

IZARTXOAK (IKUS-ENTZUNEZKOAK):

1. 12. KORRIKA; 2. Egan; 3. Esne Beltza; 4. Ines Osinaga; 5. 1. irudia; 6. C; 7. C.

KORRIKA AUDIOAK (KANTAK):



Audio bakoitza zein edizioarekin dagoen lotuta jarri dizuegu hemen (edizio hartako abeslarien informazioarekin batera).

- K1 AUDIOA** (1. KORRIKA > Xabier Amuriza)
- K2 AUDIOA** (9. KORRIKA > Alex (Exkixu); Gorka (Sorotan Bele); Maixa, Ixiar eta Garbiñe)
- K3 AUDIOA** (8. KORRIKA > Tapia eta Leturia)
- K4 AUDIOA** (6. KORRIKA > Xanti eta Maider)
- K5 AUDIOA** (2. KORRIKA > Akelarre)
- K6 AUDIOA** (13. KORRIKA > Mikel Laboa eta Ruper Ordorika)
- K7 AUDIOA** (14. KORRIKA > Afrika, Ernesto eta Isra)
- K8 AUDIOA** (16. KORRIKA > Betagarri)
- K9 AUDIOA** (5. KORRIKA > Oskorri)
- K10 AUDIOA** (15. KORRIKA > Niko Etxart eta Hapa-hapa)
- K11 AUDIOA** (21. KORRIKA > La Furia, Mad Muasel eta Fermin Muguruza)
- K12 AUDIOA** (10. KORRIKA > Gozategi)

TXARTELAK ONLINE:

► Fitxak moztzen eta bideo zein audio karpetak antolatzen ibili nahi ez baduzu, pantaila handian **TXARTELDEGIA ireki**, eta jokalariai laukiko letrari dagokion txartel bat hartu beharrean, ordenagailuan letrari dagokion txartela ireki ezazu. Ez nahasteko, hurrenkera jarraitu. Online txarteldegia aukeratzen baduzu, eduki itzazu eskura erantzun zuzenen orri hauek.

► **Z letradun laukietan** eroriz gero, **bota dadoa berriro** eta **erabili kode hau**:

- 1: Bota **dadoa berriro** / 2: Zoaz 2 lauki **atzera**
 3: Zoaz 3 lauki **aurrera** / 4: Zoaz 4 lauki **atzera**
 5: Zoaz 5 lauki **aurrera** / 6: Egon **txanda bat geld**

Bestela, online erruleta bat erabil dezakezu eskuko telefonoan; esaterako, hauetakoren bat:

<https://wordwall.net/resource/67340727> , <https://spinhewheel.io/wheels/x2TL2BKATKHqL5rPFKyk>

KORRIKA						EUSKARA						GEOGRAFIA			
1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4
7	8	9	10	11	12	7	8	9	10	11	12	5	6	7	8
13	14	15	16	17	18	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12
19	20	21	22	23	24	19	20	21	22	23	24	13	14	15	16
25	26	27	28	29	30	25	26	27	28	29	30	17	18	19	20
31	32	33	34	35	36	31	32	33	34	35	36	21	22	23	24
37	38	39	40	41	42	37	38	39	40	41	42	25	26	27	28
43	44	45	46	47	48	43	44	45	46	47	48	29	30	31	32

<https://korrika.h5p.com/content/1292170213387048667>

Online txartelen erantzun zuzenak:

KORRIKA (K)

- c. Oñatitik Bilbora
- b. Remigio Mendiburuk
- (1. BIDEOA) 12. Korrikarena
- (HIEROGLIFOA) Hamaika
- (K1 AUDIOA) b. Denok bai euskarari
- b. Irunen
- (LOGOTIPOA) 4. KORRIKA
- 6 urte inguru. Adibidez: Korrika 16, 2009an ospatu zen; Korrika 17, 2011n; Korrika 18, 2013an; eta Korrika, 19, 2015ean. Beraz, lau Korrika sei urtean.
- (K2 AUDIOA) a. ... izan gaitzezke
- a. 2.100 kilometro inguru
- (HIEROGLIFOA) Kohete batek bezala
- b. Harro herri!
- (K3 AUDIOA) c. Tapia eta Leturiak
- Bigarren postuan
- a. Klika
- (2. BIDEOA) Egan
- b. Bi urterik behin
- (K4 AUDIOA) b. ... eraso denen gainetik!
- a. Azpeitian
- (HIEROGLIFOA) Andoain
- (3. BIDEOA) Esne Beltza
- b. Baionan
- (K5 AUDIOA) a. 2. KORRIKari
- (LOGOTIPOA) 12. KORRIKA
- (4. BIDEOA) Ines Osinaga
- b. Donibane Garazin
- (K6 AUDIOA) a. Mikel Laboak eta c. Ruper Ordorikak
- (HIEROGLIFOA) Irun
- (5. BIDEOA) 1. irudia
- b. Martxoaren erdialdean
- (K7 AUDIOA) a. ... sortzen dira hizkuntzak
- c. Hamaika
- (6. BIDEOA) c. Lehenengo lekukoa San Telmo museoan dago
- b. Amurriotik
- (K8 AUDIOA) b. 16. KORRIKari
- (LOGOTIPOA) 13. KORRIKA
- c. ... zu eta ni euskaraz
- (K9 AUDIOA) b. Oskorrik
- b. Mezu sekretu bat
- (K10 AUDIOA) b. ... heldu heldu Euskarari
- c. Ken Zazpik
- (7. BIDEOA) c. Mezua AEK-ko arduradunek idazten dute
- c. Martxoaren 24an
- (K11 AUDIOA) a. ... gurea, herrikoa, korrika!
- a. Hitzekin
- c. Txillardeg
- (K12 AUDIOA) a. Gozategik
- b. Maite Arroitauregi Aranburuk (Mursego)

Online txartelen erantzun zuzenak:

EUSKARA (E)

1. b. Hamaiketan
2. c. ... baino politagoa"
3. a. Indartsu daude
4. c. Laurak eta laurden
5. a. Joango gara KORRIKArA?
6. b. Hamabi eta erdiak
7. c. Motelago joateko
8. b. Atsedeen hartu
9. b. Bihar herrira joango da KORRIKA
10. c. Giltzak erori zaizkit
11. c. Nekatuta gaude
12. c. KORRIKA bihar etorriko da herrira
13. c. Azken eguneko jaia
14. a. Entrenatzen hasiko naiz
15. b. Zer urduri nagoen!
16. a. Uf! Jota nago! EDO b. Uf! Blai nago!
17. c. Egurrezkoa
18. ERANTZUNA: hartzen du (Ipar Euskal Herrian esaldia zuzena da, han "jende" hitza pluralean baitarabilte)
19. b. Martxoaren 24an
20. ERANTZUNA: erosiko dut
21. b. Euria ari du-eta
22. b. Etzi etorriko da
23. a. Eguerdiko ordu bietan
24. a. Maialenekin
25. b. KORRIKAn parte hartuko dut
26. c. ... egin behar dut"
27. c. Bihar
28. c. ... gaizki pasatzea"
29. b. Ikastaldeko azkarrena
30. a. AEK-k
31. c. ... laguntzeko"
32. b. 08:05ean
33. b. Datorren igandean
34. c. Ezazue
35. b. ... entrenatzera joango naiz
36. b. Hasiko
37. ERANTZUNA: neukan / nuen
38. a. Emadazu ura, mesedez!
39. b. Ezin naiz joan
40. ERANTZUNA: ... nituen
41. c. Kontuz ibiliko zara
42. c. Oso nekatuta dagoela
43. ERANTZUNA: jende askok
44. b. Atzera joan
45. a. Beharrean arituko naiz
46. c. Asteazkenean
47. b. Guk!
48. c. Aurrera joan

GEOGRAFIA (G)

1. b. Andre Maria Zuriaren plaza
2. a. Bermeo
3. b. Maule
4. b. Agurainetik
5. a. Aretxabaletakoa
6. c. Ezkaroze
7. a. Herrera
8. c. Piperra
9. c. Tutera
10. b. Araban
11. a. Agoitz
12. b. Urumeatik
13. c. Gorbeia
14. b. Iruñean
15. b. Abaurregaina (1.039 m)
16. b. Juanito Oiartzabal
17. b. AEK-KORRIKA
18. a. Dulantzi
19. c. Karra Elejalde aktore eta umorista
20. b. Txillardegi hizkuntzalari, idazle eta politikaria
21. c. Txakolina
22. b. Lizarran
23. c. Barakaldo
24. a. Iruñea
25. b. Azkaine
26. c. Guadiana
27. b. Iturrieta (972 m)
28. b. Araban
29. a. Lapurdin
30. a. Gabriel Aresti olerkaria
31. c. Arga
32. c. Gasteizen

JOKOA AMAITUTAKOAN:

- ▶ 23. KORRIKAK egingo duen ibilbideari buruz arituko gara: herriko edo eskualdeko ibilbidea ezagutzen duten, zein ordutan sartuko den, non hartzeko asmoa duten...
- ▶ KORRIKA aplikazioari buruzko argibideak emateko aprobetxatuko dugu: galdetu ea deskargatu duten, eta horrela ez bada, eskolan bertan nola egiten den azal diezaiekegu. Behean duzue aplikazioari buruzko informazioa.

Deskargatu KORRIKAre doako APP-a...


... eta HARRO HERRI!!

Aurtengo nobedadeen artean, KORRIKA app-a da aipagarriena; aurreko ediziotik hona, guztiz itxuraldatuta dator: hainbat atal berri ditu; adibidez, KORRIKA Laguntzaile txartela txertatuta dakar. Horrez gain, astero KORRIKA Laguntzaileen artean egiten diren zozketak (eta, noski, irabazleak) erakusten dira bertan.

Ibilbideari lotuta, arestian aipatu bezala, aplikazioak beste inon baino lehenago ikusteko aukera eskaintzen du, eta, hori gutxi ez balitz bezala, KORRIKA zuzenean jarraitzeko aukera ere emango du: furgonetaren geolokalizazioaren bidez, korrikalariak jakingo dute KORRIKA aurrerapenez ala atzerapenez datorren; hots, aplikazioaren erabiltzaileek une oro egiaztatu ahal izango dute nondik dabilen lasterketa. Horri lotuta, interesgarria da jakitea bilatzaile aurreratua duela: erraz ikusi ahal izango da non dagoen edozein herri, eskualde edo/eta kilometro.

Amaitzeko, aplikazioak aukera ematen du KORRIKAre inguruko jakinarazpen eta eta informazio garrantzitsuenen berri jasotzeko —orain arteko gertaerak, aurkezpena, abestia, ibilbidea...—. IOS zein Android bertsioentzat dago eskuragarri, eta lasterketa bitartean gerta litekeen edozein gorabeherari buruz ere informatuko du.

Deskargatu KORRIKAre APPa eta ekin KORRIKari!



K

Nondik nora joan zen lehenengo KORRIKA?

- a. Andoaindik Baionara
- b. Urepeletik Bilbora
- c. Oñatitik Bilbora

K

KORRIKAN, lekuko bat eramaten da. Nork egin zuen lehenengo lekukoa?

- a. Jorge Oteizak
- b. Remigio Mendiburuk
- c. Juan Gorritik

K

Normalean, KORRIKA bi urterik behin antolatzen da. Zenbat denbora behar dugu lau KORRIKA ikusteko?

ERANTZUNA: 6 urte inguru.
Adibidez: Korrika 16, 2009an ospatu zen; Korrika 17, 2011n; Korrika 18, 2013an; eta Korrika, 19, 2015ean. Beraz, lau Korrika sei urtean.

K

HIEROGLIFOA: zenbat kilometro egingo duzu KORRIKAN?



Erantzuna irakasleak dauka.

K

HIEROGLIFOA: nola egingo duzu KORRIKA? "..... batek bezala".



Erantzuna irakasleak dauka.

K

HIEROGLIFOA: herri hau KORRIKA baten abiapuntua izan zen.



Erantzuna irakasleak dauka.

K

HIEROGLIFOA: zein herri zeharkatu ohi du KORRIKAK Lapurdira sartu aurretik?



Erantzuna irakasleak dauka.

K

KORRIKA Iruñean dago, eta amaitzeko metro batzuk falta dira... bat-batean, esprinta egin duzu eta bigarren korrikalaria aurreratu duzu. Zein postutan heldu zara helmugara?

ERANTZUNA: bigarren postuan

K

Zenbat kilometro egiten dira KORRIKAN?

- a. 2.100 kilometro inguru
- b. 1.000 kilometro inguru
- c. Ia 5.000 kilometro

K

Begiratu logotipoari eta esan zein KORRIKAtakoa den.



Erantzuna irakasleak dauka.

K

Begiratu logotipoari eta esan zein KORRIKAtakoa den.



Erantzuna irakasleak dauka.

K

Begiratu logotipoari eta esan zein KORRIKAtakoa den.



Erantzuna irakasleak dauka.

K

Hau da 11. KORRIKAren leloa. Nola amaitzen da?

Bat eta bat hamaika...

- a. ... *bi eta bi hogeita bi*
- b. ... *hemen dator Korrika*
- c. ... *zu eta ni euskaraz*

K

Non ez da inoiz hasi KORRIKA?

- a. Azpeitian
- b. Orreagan
- c. Trebiñun

K

Non ez da inoiz amaitu KORRIKA?

- a. Gasteizen
- b. Donibane Garazin
- c. Baionan

K

Zenbat KORRIKA egin dira XXI. mendean?

- a. Bederatzi
- b. Hamar
- c. Hamaika

K

KORRIKA, egurrezko lekuko bat eramaten da herriz herri. Zer dago lekukoaren barruan?

- a. Omenduaren izena
- b. Mezu sekretu bat
- c. Ezer ez

K

KORRIKA-kantak euskal musika-taldeek eta kantariak egiten dituzte. Nork ez du egin, orain arte, KORRIKA kantarik?

- a. Betagarrik
- b. Mikel Laboak
- c. Ken Zazpik

K

Nork sortu du 23. KORRIKAren kanta?

- a. Ines Osinaga Urizarrek
- b. Maite Arroitauregi Aranburuk (Mursego)
- c. Zuriñe Hidalgo Alonsok

K

Non hasiko da 23. KORRIKA?

- a. Baionan
- b. Irunen
- c. Hendaian

K

Non amaituko da 23. KORRIKA?

- a. Donostian
- b. Baionan
- c. Gasteizen

K

Zein da 23. KORRIKAren leloa?

- a. Harro adi!
- b. Harro herri!
- c. Harroputz herri!

K

Noiz hasiko da 23. KORRIKA?

- a. Martxoaren hasieran
- b. Martxoaren erdialdean
- c. Martxoaren amaieran

K

Noiz amaituko da 23. KORRIKA?

- a. Martxoaren 3an
- b. Martxoaren 10ean
- c. Martxoaren 24an

K

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: 12. Korrikarena

K

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Egan

K

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Esne Beltza

K

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Ines Osinaga

K

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: 2. irudia

K

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: lehenengo lekukoa San Telmo Museoan dago

K

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: mezua AEK-ko arduradunek idazten dute

K

Zein izan zen 21. KORRIKAREN **leloa**¹?

- a. Klika
- b. Batzuk
- c. Korri

1. Lelo: eslogan; *slogan*

K

Nor **omendu**¹ zuen 21. KORRIKAK?

- a. Xabier Amuriza
- b. Andoni Egaña
- c. Txillardegia

1. Omendu: homenajear; *rendre hommage*

K

Zein **maiztasunez**¹ antolatzen da KORRIKA normalean?

- a. Urtero
- b. Bi urterik behin
- c. **Bisurteetan**² baino ez

1. Maiztasun: frecuencia; *fréquence*
2. Bisurte: año bisiesto; *année bissextile*

K

Nondik abiatu zen 22. KORRIKA?

- a. Agurainetik
- b. Amurriotik
- c. Arbonatik

K

Zein izan zen 22. KORRIKAREN **leloa**¹?

- a. Hitzekin
- b. Hitz egin
- c. Ekin elkarrekin

1. Lelo: eslogan; *slogan*



K1 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 1. KORRIKAre kanta da.
Nola jarraitzen du?
*Milaka korrikari
Euskal herri guztietan...*

- a. ... denok gara abeslari
- b. ... denok bai euskarari
- c. ... euskaraz eta kantari



K2 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 9. KORRIKAre kanta da.
Nola jarraitzen du?
*Gu zenbat lagun ote
hirekin asko...*

- a. ... izan gaitezke
- b. ... euskara eske
- c. ... gaude oso alde



K3 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 8. KORRIKAre kanta da.
Zeinek abesten du?

- a. Pantxoa eta Peiok
- b. Imuntzo ta Belokik
- c. Tapia eta Leturiak



K4 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 6. KORRIKAre kanta da.
Nola jarraitzen du?
Gure hizkuntza aurrera doa...

- a. ... eta ez dakigu noiztik!
- b. ... eraso denen gainetik!
- c. ... gure buruen gainetik!



K5 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Zein KORRIKari dagokio kanta?

- a. 2. KORRIKari
- b. 7. KORRIKari
- c. 17. KORRIKari



K6 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 13. KORRIKAre kanta da.
Hauetako bi kantarik abesten dute, zeintzuek?

- a. Mikel Laboak
- b. Benito Lertxundik
- c. Ruper Ordorikak



K7 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 14. KORRIKAre kanta da.
Nola jarraitzen du?
Elkar ulertzeko...

- a) ... sortzen dira hizkuntzak
- b) ... hitzak eta hitzak
- c) ... gora bizitzak



K8 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Zein KORRIKari dagokio kanta?

- a. 7. KORRIKari
- b. 16. KORRIKari
- c. 19. KORRIKari



K9 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 5. KORRIKAre kanta da.
Zeinek abesten du?

- a. Kortatuk
- b. Oskorrik
- c. Itoitzek



K10 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 15. KORRIKAre kanta da.
Nola jarraitzen du?
Heldu heldu KORRIKari...

- a. ... zatoz (e)ta eman hari
- b. ... heldu heldu Euskarari
- c. ... goazen korrikalari



K11 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 21. KORRIKAre kanta da.
Nola jarraitzen du?
*Motorrak arrankatzeko
momentuko aukera*

- a. ... gurea, herrikoa, KORRIKA!
- b. ... pausoz pauso, aurrera!
- c. ... presarik gabe, aurrera!



K12 AUDIOA

Entzun eta erantzun galderari:

Hau 10. KORRIKAre kanta da.
Zeinek abesten du?

- a. Gozategik
- b. Kepa Junkerak
- c. Gu ta Gutarrakek

G

21. KORRIKA Gasteizen amaitu zen. Nola deitzen da Gasteizeko plazarik famatuena?

- a. Florida plaza
- b. Andre Maria Zuriaren plaza
- c. Estafeta plaza

G

KORRIKA normalean herri hauetatik igarotzen da. Zein dago besteak baino iparralderago?

- a. Bermeo
- b. Donostia
- c. Donibane Garazi

G

Korrika Zuberoatik igaroko da. Zein da Zuberoako hiriburua?

- a. Donibane Lohizune
- b. Maule
- c. Donibane Garazi

G

KORRIKA Altsasura mendebaldetik badator, zein herritatik etorriko da?

- a. Etxarri Aranaztik
- b. Agurainetik
- c. Urdiaindik

G

KORRIKA euskalki asko entzun ahal izango ditugu: gaurkoan, korrikalari batek zera esan du: "KORRIKA dator! Bagoiaz?". Nongoa da?

- a. Aretxabaletakoa
- b. Maulekoa
- c. Donostiakoa

G

KORRIKA normalean ondoko herrietatik igarotzen da. Zein dago ekialderago?

- a. Tafalla
- b. Iruñea
- c. Ezkaroze

G

KORRIKA, normalean, mendate hauetatik pasatzen da. Zein da altuena?

- a. Herrera
- b. Barazar
- c. Erremendia

G

KORRIKA normalean ondoko herrietatik igarotzen da. Zein dago besteak baino mendebalderago?

- a. Urduña
- b. Santurtzi
- c. Gasteiz

G

KORRIKA normalean ondoko herrietatik igarotzen da. Zein dago besteak baino hegoalderago?

- a. Bernedo
- b. San Adrian
- c. Tutera

G

Zein herrialdean hasi zen 22. KORRIKA?

- a. Nafarroan
- b. Araban
- c. Bizkaian

G

KORRIKA Iruñetik igaro berri bada, eta Pirinioetarantz badao, hauetako zein izango da hurrengo herria?

- a. Agoitz
- b. Irurtzun
- c. Tutera

G

Zein ibairen gainetik igaroko dira korrikalariak Donostian?

- a. Zadorratik
- b. Urumeatik
- c. Aturritik

G

KORRIKA normalean Barazar mendatetik igarotzen da. Zein mendi ikusten da Barazartik?

- a. Anboto
- b. Oiz
- c. Gorbeia

G

Zein euskal hiriburutan ibiliko da KORRIKA, Arga ibaiaren gainetik pasatzen ari bada?

- a. Gasteizen
- b. Iruñean
- c. Maulen

G

KORRIKA normalean herri hauetatik igarotzen da. Zein da altuena?

- a. Otsagabia
- b. Abaurregaina
- c. Otxandio

*Otsagabia (764 m)
Abaurregaina (1.039 m)
Otxandio (554 m)*

G

Pertsona famatu hauetako bat Gasteizekoa da. Badakizu nor?

- a. Gorka Urbizu musikaria
- b. Juanito Oiarzabal mendizalea
- c. Estitxu Arozena bertsolaria

G

Nola izena du KORRIKAREN ibilbidea azaltzen duen aplikazioak?

- a. KORRIKAREN IBILBIDEA
- b. AEK-KORRIKA
- c. Ez dago halakorik

G

KORRIKA Aguraindik igaro berri bada, eta Gasteizerantz badoa, hauetako zein izango da hurrengo herria?

- a. Dulantzi
- b. Altsasu
- c. Zegama

G

Pertsona famatu hauetako bat Gasteizekoa da. Badakizu nor?

- a. Onintza Enbeita bertsolaria
- b. Maider Unda kirolaria
- c. Karra Elejalde aktore eta umorista

G

Pertsona famatu hauetako bat Donostiakoa da. Badakizu nor?

- a. Ilaski Serrano kazetari eta telebista-aurkezlea
- b. Txillardegi hizkuntzalari, idazle eta politikaria
- c. Alberto Iñurrategi mendizalea

G

Bakiotik pasatzean, zein edari tipiko hartuko dute korrikalariak?

- a. Sagardoa
- b. Ardoa
- c. Txakolina

G

Herri hauetako batean ez dira sanferminak ospatzen. Badakizu non?

- a. Iruñean
- b. Lizarran
- c. Lesakan

G

KORRIKAK bisitatuko dituen hiru herri hauen artean, zein da jendetsuena?

- a. Irun
- b. Baiona
- c. Barakaldo

G

KORRIKAK hiriburu guztiak bisitatuko ditu, baina zein da Euskal Herriko hiriburu historikoa?

- a. Iruñea
- b. Gasteiz
- c. Baiona

G

KORRIKA Senperetik igaro berri bada, eta Hendaiarantz badoa, hauetako zein izango da hurrengo herria?

- a. Donibane Garazi
- b. Azkaine
- c. Maule

G

KORRIKAREkin, ibai askoren gainetik igaroko gara, baina hauetako batetik ez. Zeinetatik?

- a. Ega
- b. Arga
- c. Guadiana

G

KORRIKA normalean herri hauetatik igarotzen da. Zein da altuena?

- a. Lizarra
- b. Iturrieta
- c. Beizama

*Lizarra (426 m)
Iturrieta (972 m)
Beizama (485 m)*

G

Non dago Iturrieta herria?

- a. Lapurdin
- b. Araban
- c. Nafarroa Beherean

G

Non dago Biarritz herria?

- a. Lapurdin
- b. Gipuzkoan
- c. Zuberoan

G

Non dago Genevilla herria?

- a. Nafarroan
- b. Araban
- c. Gipuzkoan

G

Zein (izan) da Bilbokoa?

- a. Gabriel Aresti olerkaria
- b. Gorka Knörr musikari eta politikaria
- c. Martin Fiz korrikalaria

G

Zein ibai zeharkatuko dute korrikalariak Iruñetik igarotzean?

- a. Ebro
- b. Urrobi
- c. Arga

G

Ezpeletan, zein elikagai tipiko jango dute korrikalariak?

- a. Baratxuria
- b. Gazta
- c. Piperra

G

Badakizu zein ibai zeharkatuko duten korrikalariak Amurriotik igarotzean?

- a. Ibaizabal
- b. Cadagua
- c. Nerbioi

G

Non bizi da jende gehien?

- a. Iruñean
- b. Donostian
- c. Gasteizen

G

Non dago Gares?

- a. Izarbeibarren
- b. Lizarraldean
- c. Orbaibarren

E

KORRIKAren zain zaudete, eta lagun batek galdera egin dizu: "Zer ordutan iritsiko da KORRIKA?" Zer erantzun behar diozu?

- a. Hamaikan
- b. Hamaiketan
- c. Hamaiketakoan

E

KORRIKAren zain zaudete, eta lagun batek galdera egin dizu: "Zer ordu da?" Zer erantzun behar diozu?

- a. Lau hamabostak
- b. Lauak eta laurdenak
- c. Lurak eta laurden

E

KORRIKAren zain zaudete, eta lagun batek galdera egin dizu: "Zer ordu da?" Zer erantzun behar diozu?

- a. Hamabi hogeita hamarrak
- b. Hamabi eta erdiak
- c. Hamabiak eta erdiak

E

KORRIKA oso azkar doa eta ezin diozu erritmoari jarraitu. Zer eskatuko duzu?

- a. Motelago joatera
- b. Motelago joan direla
- c. Motelago joateko

E

Ikusi duzu KORRIKA arropa? Nolakoa da?

"Aurreko KORRIKAKoa..."

- a. ... *baino polita gehiago*"
- b. ... *bezain politagoa*"
- c. ... *baino politagoa*"

E

KORRIKARA joan nahi duzu eta lagun bat gonbidatu nahi duzu. Zer esango diozu?

- a. Joango gara KORRIKARA?
- b. Joaten gara KORRIKARA?
- c. KORRIKARA goaz?

E

Ikasle batzuek 40 kilometro egin dituzte KORRIKAN. Nola daude?

- a. Indartsu daude
- b. Gogorak daude
- c. Zoratutak daude

E

Oso nekatuta bazaude, zer egin beharko duzu?

- a. Atsedean egiten
- b. Atsedean hartu
- c. Atsegina izan

E

"Nora joango da KORRIKA bihar?" galdetu dizute. Zer erantzun behar duzu?

- a. KORRIKA joango da bihar herrira
- b. Bihar herrira joango da KORRIKA
- c. KORRIKA bihar joango da herrira

E

"Noiz etorriko da KORRIKA herrira?" galdetu dizute. Zer erantzun behar duzu?

- a. KORRIKA etorriko da bihar herrira
- b. Bihar herrira etorriko da KORRIKA
- c. KORRIKA bihar etorriko da herrira

E

KORRIKA egiten hasi zara eta giltzak galdu dituzu. Nola esan behar duzu?

- a. Giltzak erortzen zaizkit
- b. Giltzak erori zait
- c. Giltzak erori zaizkit

E

KORRIKAN, 40 kilometro egin dituzue. Zer esango duzue?

- a. Nekatua gaude
- b. Nekatutak gaude
- c. Nekatuta gaude

E

Zer ospatuko da asteburu honetan?

- a. Azken egunaren jaia
- b. Azken egunezko jaia
- c. Azken eguneko jaia

E

KORRIKA laster etorriko da. Zer egingo duzu?

- a. Entrenatzen hasiko naiz
- b. Entrenatzen hasiko zait
- c. Entrenatzen hasiko dut

E

KORRIKA heltzen denean oso **urduri**¹ jartzen bazara, zer esan behar duzu?

- a. Zer urduri nago!
- b. Zer urduri nagoen!
- c. Zer urduri nagoela!

1. Urduri: nervioso, -a; *inquiet*

E

Teresek kilometro asko egin ditu KORRIKAn eta ezin du jarraitu. Zer esan du?

- a. Uf! Jota nago!
- b. Uf! Blai nago!
- c. Uf! Oker nago!

E

Ikusi duzu KORRIKAn lekukoa? Nolakoa da?

- a. Egurrarena
- b. Egurrekoa
- c. Egurrezkoa

E

Hego Euskal Herriko egunkari batean irakurri dugu honakoa. Zuzendu esaldia:

"KORRIKAn jende askok hartzen dute parte"

ERANTZUNA: hartzen du.
(Ipar Euskal Herrian esaldia zuzena da, han "jende" hitza pluralean baitarabilte)

E

Noiz pasatuko da KORRIKA hemendik?

- a. Martxoaren 19etan
- b. Martxoaren 24an
- c. Martxoak 19an

E

Zuzendu esaldi hau:

"Korrika egiteko petoa erosiko naiz"

ERANTZUNA: erosiko dut

E

Oso alferra zara eta ez duzu Korrika egin nahi. Nola amaituko duzu **aitzakia**¹ hau?
"Ezin naiz korrikara joan..."

- a. ... euria ari da-eta"
- b. ... euria ari du-eta"
- b. ... euria ari zait-eta"

1. Aitzakia: pretexto; *prétexte*

E

KORRIKA zure herritik pasatzeko bi egun falta badira, zer esango duzu?

- a. Herenegun etorriko da
- b. Etzi etorriko da
- c. Herensuge etorriko da

E

Zein orduan igaroko da KORRIKA plazatik?

- a. Eguerdiko ordu bietan
- b. Eguerdiko bi orduan
- c. Eguerdiko bietan

E

Norekin joango zara KORRIKARA?

- a. Maialenekin
- b. Maialenarekin
- c. Maialenkin

E

Zein da zuzena?

- a. KORRIKAn parte hartuko zaigu
 b. KORRIKAn parte hartuko dut
 c. KORRIKAn parte hartuko da

E

Zein da zuzena?

"Euskara gehiagotan..."

- a. ... *egiten behar dut*"
 b. ... *egingo behar naiz*"
 c. ... *egin behar dut*"

E

Noiz egingo dugu, bada, KORRIKA?

- a. Atzo
 b. Herenegun
 c. Bihar

E

Amaitu esaldia:

"KORRIKAn debekatuta dago..."

- a. ... *gaizki pasatzeko*"
 b. ... *gaizki pasatzen*"
 c. ... *gaizki pasatzea*"

E

Ikasle guztiak KORRIKara joan zarete eta zu heldu zara lehena. Zer zara?

- a. Ikastaldeko azkarregia
 b. Ikastaldeko azkarrena
 c. Ikastaldeko azkarragoa

E

Osatu esaldia:

"KORRIKA ... antolatzen du"

- a. AEK-k
 b. AEK
 c. AEKn

E

Amaitu esaldia:

"KORRIKAn parte hartu behar dugu euskarari ..."

- a. ... *laguntzea*"
 b. ... *lagunduko*"
 c. ... *laguntzeko*"

E

Osatu esaldia:

"KORRIKA ... sartuko da gure herrian"

- a. 08:05en
 b. 08:05ean
 c. 08:05etan

E

Osatu esaldia:

"... iritsiko da KORRIKA"

- a. Datorren iganden
 b. Datorren igandean
 c. Datorren igandetan

E

Osatu esaldia:

"KORRIKAN astakeriarik ez ... egin"

- a. zaitetze
 b. itzazue
 c. ezazue

E

Amaitu esaldia:

"KORRIKA iritsi arte, ..."

- a. ... *entrenatzeko joango naiz*
 b. ... *entrenatzera joango naiz*
 c. ... *entrenatu joango naiz*

E

Osatu esaldia:

"Bihar ... da KORRIKA"

- a. *hasi*
 b. *hasiko*
 c. *hasteko*

E

Zer falta da esaldi honetan?

"Aurreko KORRIKAn ezin izan nuen parte hartu, buruko mina eta"

ERANTZUNA: neukan / nuen

E

Nola amaitu behar duzu esaldi hau?

"Aurreko KORRIKAn ondo entrenatu nintzen eta kilometro guztiak egin ..."

ERANTZUNA: ... nituen

E

KORRIKA egin ondoren, egarri zara eta ura nahi duzu. Zer esango duzu?

- a. Emadazu ura, mesedez!
- b. Emaiozu ura, mesedez!
- c. Eman didazu ura, mesedez!

E

Zein da zuzena?

- a. Ezin dut joan
- b. Ezin naiz joan
- c. Ezin ahal naiz joan

E

Donapaleura joan zara KORRIKARA. Halako batean, "Kasu! Kasu!" esan dizu batek. Zer egingo duzu?

- a. Egunkaria erosiko diozu
- b. Agurtu egingo duzu
- c. Kontuz ibiliko zara

E

Ondoko esaldian akats bat dago. Zuzendu ezazu:

"Azken KORRIKAn, jende asko hartu zuen parte"

ERANTZUNA: jende askok

E

Hendaiara joan zara korrika egitera. Halako batean, zera entzun duzu: "Biziki akituta nago!". Zer esan nahi du?

- a. Hendaian bizi dela
- b. Korrika azkar egiten duela
- c. Oso nekatuta dagoela

E

Baionara joan zara KORRIKARA. Halako batean, "Zoaz gibelerat!" esan dizu batek. Zer egingo duzu?

- a. Medikuarenera joan, gibela txarto daukazu-eta
- b. Atzera joan
- c. Aurrera joan

E

KORRIKAREN lehenengo egunean lan egin beharko duzu eta ezin izango zara Amurrionara joan. Nola esango diozu hori bizkaitar bati?

- a. Beharrea arituko naiz
- b. Lantzean arituko naiz
- c. Trabakuan arituko naiz

E

Zein egunetan pasatuko da KORRIKA?

- a. Asteazkenan
- b. Asteazken
- c. Asteazkenean

E

Irakasleak galdetu egin du: Nork hartu nahi du lekukoa? Denok batera erantzun duzue:

- a. Gu!
- b. Guk!
- c. Guek!

E

Maulera joan zara KORRIKARA. Halako batean, "Zoaza aitzinera" entzun duzu. Zer egingo duzu?

- a. Denbora-makinan sartu eta iraganera joan
- b. Atzera joan
- c. Aurrera joan

Z

Hemendik aurrera autoan "Euskal Kantak" irratia entzutea erabaki duzunez, **aurreratu bi lauki**.

**Z**

Telefonoa euskaraz jartzea erabaki duzunez, **aurreratu hiru lauki**.

**Z**

KORRIKA zure herritik pasatu da, baina zu lo geratu zara eta ez zara joan. **Zeure fitxa lau lauki atzera eraman behar duzu, txanda galduta.**

**Z**

Hemendik aurrera tabernan euskaraz eskatuko duzula erabaki duzunez, **aurreratu bi lauki**.

**Z**

Hemendik aurrera lagun edo senide batekin euskaraz mintzatzeko apustua egin duzunez, **aurreratu hiru lauki**.

**Z**

KORRIKA-kanta aingerutxoen moduan abestu duzunez, **dadoa birritan bota dezakezu jarraian, txartelik hartu gabe.**

**Z**

Antidopin-kontrola egin dizute, eta argi gorria piztu da. Hartu duzunaren eragina pasatzen uzteko, **hiru aldiz geratu beharko duzu jokatu gabe.**

**Z**

Aste osoan, piperrik egin gabe eta anestesiarik gabe, irakaslea jasan duzunez, **zeure fitxa bost lauki aurrerago eramango duzu**. Segi horrela!

**Z**

KORRIKAN, erdaraz hitz egiten harrapatu zaitugu. **Zeure fitxa hamar lauki atzera eraman behar duzu, txanda galduta.**

**Z**

Kilometro oso bat egin duzu korrika, gelditu eta negarrik egin gabe. Balentria ospatzeko, **bota ezazu dadoa berriro, txapeldun!**

**Z**

KORRIKA-kanta abesten hasi zara eta, arraioa!, ez dakizu osorik. Kanta osoa ikasteko, **hiru aldiz jokatu gabe geratuko zara, txanda galduta.**

**Z**

KORRIKAN, behar bezala, KORRIKA-arropa jantzita agertu zara oinetatik burura. Horren



dotore etortzeagatik, **eraman zeure fitxa bost lauki aurrerago eta bota dadoa berriro.**

æk 23. korrika

